

2015 Udalekuak

2015. URTEKO UDALEKUAK

Udalekuak haurrentzako udako jarduera-programa dira. Uztailean izaten dira, astelehenetik ostiralera, eta 4 edo 5 ordu irauten dute.

Ordu hauetan, hurrek ekimen ugari egiten dituzte: gai askotako tailerrak, jolasak, ibilaldiak, kirolak... Irteera batzuk ere egiten dituzte: hikipa egitera, multi-abentura ekitaldietara, hordartzara, gaua Urondoko Txokoan pasatzera, Maruri-Jatabeko igerilekuetara, egun osoko txangoa herritik kanpo...

Udalekuak enpresa espezializatu batek kudeatzen ditu. Jarduerak koordinatzeko eta hurrak gainbegiratzeko, monitoreak egoten dira (monitore bat 10 hurreko).

❖ **Udalekuak euskaraz dira.**

Helburuak

Gatikako udalekuen helburuak hauek dira:

- 1) Udako oporrak pasatzeko aukera entretenigarria, hezigarria eta aberatsa eskaini hurrei.
- 2) Adiskidetasuna eta elkarkidetzaren bezalako elkarbizitza baloreak sustatu; eta baita edozein motatako bereizkeriaren baztertzear ere. Gizon eta emakhaurren arteko estereotipoen hausturaren alde egin, eta sexu bien arteko aukeren berdintasuna bultzatu.
- 3) Natura aintzakotzat hartzen eta errespetatzen ikasi.
- 4) Gatika eta inguruko ohitura eta kultura-ondarea ezagutzera eman hurrei.
- 5) Euskararen erabilera sustatzea hurren artean.

2015 Udalekuak

Egutegia eta ordutegia

2015. urteko Gatikako Udalekuak uztailean izango dira (astelehenetik ostiralera). Uztailaren 1ean hasi eta 30ean bukatuko dira. Guztira, 22 egun izango dira.

Azpiko irudian ikusi daikete udalekuetako egutegia uztailean:

UZTAILA						
A	B	C	D	E	F	G
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		
4	4	5	5	4	0	0

■ Udaleku eguna
■ Larunbata
■ Igandea
■ Jaiak

Bi ordutegi eskaintzen dira:

1. Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara
2. Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara (50 haur arte)

Plazak, adina eta taldeak

❖ 2015eko udalekuetan **125 plaza** eskaintzen dira.

Urte hauetan jaiotako haurrek eman dezakete izena: **2002-2011 urteak** (biak barne).

Haurrak **4 taldetan banatuta** egongo dira. Taldeak bere buru ibiliko dira, eta bakarrik egun gutxi batzuetan batuko dira (jaiak, igerilekuak...). Talde bakoitzak bere tokia izango du, eta baita jarduera-egitaraua ere.

2015 Udalekuak

Taldeak honela banatuta egongo dira:

Taldeak	Jaiotako urtea	Adina (urteak)	Plazak
A. TALDEA	2011	3-4	30
	2010	4-5	
B. TALDEA	2009	5-6	30
	2008	6-7	
C. TALDEA	2007	7-8	30
	2006	8-9	
D. TALDEA	2005	9-10	35
	2004	10-11	
	2003	11-12	
	2002	12-13	
Guztira			125

Era honetara, talde bakoitzak ez ditu 30 haur inguru baino gehiago izango.

Lekuak

Talde bakoitzak bere tokia dauka. Haurrak bertan batuko dira goizean, eta era berean, gurasoak edo arduradunak bertara joan beharko dira bila eguerdian.

Hauk dira talde bakoitzari dagokizkien tokiak:

- **1. TALDEA:** Ludoteka
- **2. TALDEA:** Gaztetzokoa
- **3. TALDEA:** Gaztetzokoa
- **4. TALDEA:** Udal-gela

Gainera, herriko beste udal-instalazioak ere erabilgarri daude: frontoia, kiroldegiko pista eta kirol gelak, eskolako futbol pista, belar artifizialezko pista, Urondoko Txokoa... Baita ludoteka eta Gaztetzokoko materiale elektronikoa ere erabiltzeko prest dago filmeak ikusteko, wiira jolasteko, karaokea...

2015 udalekuak

Egitaraua eta jarduerak

Gatikako 2015ko udalekuak **4 egitarau ezberdin** ditu; bat talde bakoitzeko.

Udalekuen egitaraua aukera askotakoa eta dinamikoa da; ekimen hauek bultzatzera bideratuta dago: jarduerak kanpoan, kirola, sormena, naturaren errespetua, euskal kultura, Gatika eta ingurunearen ezagupena (geografia, tradizioak, ohiturak, gastronomia...)

Hauek dira egingo diren jarduera batzuk:

- ✓ Jarduera ezberdinez osatutako eguneroko egitaraua: tailerrak, jokuak, kirola...
- ✓ Euskal kulturarekin lotutako jarduerak.
- ✓ Gatika eta ingurunearen ezagupena sustatzen duten jarduerak.
- ✓ Maruri-Jatabeko igerilekuetara irteerak.
- ✓ Irteera hipika egiteko.
- ✓ Irteerak abentura, kirola eta natura lotzen dituen jarduerak egiteko.
- ✓ Gauda Urdoko Txokoan.
- ✓ Tailerrak edo jarduera bereziak.
- ✓ Egun osoko txangoa.

2015 udalekuak

IZEN-EMATEA

Izen-ematea

2015. udalekuetara izena emateko **epea maiatzaren 18tik 29ra da.**

Epe honen barruan, Gatikako Kultur Etxera ekarriko dira izen-emate orria eta tarifaren ordainketaren egiaztagiria. Dokumentuak posta elektronikoz ere bidali daitezke helbide honetara: kulturetxea@gatika.net.

* *Gatikan erroldatuta ez dauden haurrak ez dute ordaindu behar onartuta daudela jakin arte.*

Tarifen ordainketa

Tarifak **BBK-ko 2095 0055 61 2055000103** kontu-zenbakian sartuko dira. Ordainketa online ere egin daiteke, diru-transferentzia baten bidez.

Ordainketa egiterakoan, "Azapalpena" atalean haurraren izena eta lehenengo abizen biak jarriko dira.

- **Kontu-zenbakia:** BBK-ko 2095 0055 61 2055000103 zenbakia.
- **Izen-abizenak:** Ordainketa egiten duen pertsonaren izen-abizenak.
- **Azapalpena:** Haurraren izena eta lehenengo abizen biak.

Oharra

* *Kanpoan geratzen diren hurrei dirua itzuliko zaie.*

2015 Udalekuak

Baldintzak eta lehentasun irizpideak

Plazak emateko, irizpide ezberdinak izango dira talde bakoitzeko. Talde guztientan behar-beharrezkoa izango da adina eta erroldapen baldintzak betetzea.

Lehentasun ordena hau izango da:

1. Gatican erroldatutako haurrak (2015eko urtarrilaren 1etik gutxienez).
2. Bananduta dauden gurasoen seme-alabak, nahiz eta Gatican erroldatuta ez egon, gurasotariko bat Gatican erroldatuta dagoenean, eta bisita-arauak ezarrita daudenean.
3. Gatikako Eskolara doazen eta Uribe Butroe mankomunitateko herrietan erroldatutako haurrak (Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Meñaka eta Maruri-Jatabe). UBK txartela eduki behar dabe.
4. Uribe Butroe mankomunitateko herrietan (Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Meñaka eta Maruri-Jatabe) erroldatuta dauden haurrak. UBK txartela eduki behar dabe.
5. Gatikako Eskolara doazen haurrak, nahiz eta EZ egon erroldatuta Uribe Butroe mankomunitateko herrietan (Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Meñaka eta Maruri-Jatabe).
6. Gatikako Eskolara EZ doazen haurrak, eta EZ daudenak erroldatuta Uribe Butroe mankomunitateko herrietan (Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Meñaka eta Maruri-Jatabe).

2015 udalekuak

TARIFAK

Hauek dira 2015. urteko udalekuen tarifak ordutegi eta erroldaketa betebeharren arabera:

10:00-14:00 ORDUTEGIA

Jaiotze urtea	Gatikan erroldatuta	Gatikan EZ erroldatuta
2011-2010	70,00€	95,00€
2009-2008	80,00€	105,00€
2007-2006	80,00€	105,00€
2005-2002	80,00€	105,00€

9:00-14:00 ORDUTEGIA

Jaiotze urtea	Gatikan erroldatuta	Gatikan EZ erroldatuta
2011-2010	80,00€	105,00€
2009-2008	90,00€	120,00€
2007-2006	90,00€	120,00€
2005-2002	90,00€	120,00€

- * **Uribe Butro**e mankomunitateko herrietan erroldatuta (Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka eta Maruri-Jatabe) dauden hurrek, Gatikakoei dagokien tarifa berbera ordainduko dute. Honetarako, UBK txartela ekarri behar dabe Gatikako Kultur Etxera..
- * Era berean, **Gatikako Eskolara doazen hurrek**, nahiz eta EZ egon erroldatuta Uribe Butro e mankomunitateko herrietan, Gatikakoei dagokien tarifa berbera ordainduko dute.
- * Irteretarako autobusa prezioaren barne dago.
- * Maruri-Jatabeko igerilekuen sarrerak EZ daude barne. Igerileku egunetan hurrek bazkide txartela edo sarreraren balio zehatza ekarri beharko dute.

2015 udalekuak

Familia ugaritsuak

Familia ugaritsuak %25 gutxiago ordainduko dute haur bakoitzeko.

10:00-14:00 ORDUTEGIA

Jaiotze urtea	Gatikan erroldatuta	Gatikan EZ erroldatuta
2011-2010	52,50€	71,25€
2009-2008	60,00€	78,75€
2007-2006	60,00€	78,75€
2005-2002	60,00€	78,75€

9:00-14:00 ORDUTEGIA

Jaiotze urtea	Gatikan erroldatuta	Gatikan EZ erroldatuta
2011-2010	60,00€	78,75€
2009-2008	67,50€	90,00€
2007-2006	67,50€	90,00€
2005-2002	67,50€	90,00€

Familia Ugarien Babeserako Legearen (*Ley 40/2003 de Protección de las Familias Numerosas*) arabera, familia ugariak era honetara osotuta dagozan familiak direz:

- ✓ Guraso bat edo bi eta hiru seme-alaba edo gehiago.
- ✓ Guraso bat edo bi eta seme-alaba bi, seme-alaba honeetariko bat gitxienez elbarria danean edo behar egiteko ezinduta dagoenean.
- ✓ Guraso bat edo bi eta seme-alaba bi, guraso biak elbarriak diranean edo bietatik batek %65eko ezintasuna edo handiagoa daukanean.
- ✓ Aita edo ama bananduta edo dibortziauta dagoenean eta bere menpe hiru seme-alaba edo gehiago daukazanean, nahiz eta ez bizi ezkontzako etxebizitzan.
- ✓ Neba-arreba bi edo gehiago aita edo ama bakoak diranean eta tutore bategaz bizi diranean, baina bere kontura ez dagozanean.

2015 Udalekuak

- ✓ Hiru neba-arreba edo gehiago aita edo ama bakoak diranean eta 18 urte baino gehiago daukiezanean (edo bi, euretariko bat ezindua danean), alkarregaz bizi diranean eta alkarrenganako menpekotasun ekonomikoa daukienean.
- ✓ Aita edo ama eta seme-alaba bi, beste gurasoa hilda dagoenean.